

# Graziarik ez duen herria, geurea

**B**atzuetan laidotua eta bestetan Gabriel laudatuak hauxe idatzi zuen orain berrogeita hamar bat urte: “Nire grazia Aresti da”. Bilboko itsasadarri so, poetak esan zuen bataioko grazia horixe zuela: Aresti. Beharbada, irakurri egingo zion *Xenpelar* errenteriarri, hark honela kantatua baitzuen han eta hemen: “Mari Bentura dauka grazia”, dama gazte bat identifikatzeko. Edo, Ayesta zeberioztarrari, hark bere buruaz ziharduela *Auspoa* liburutegiko ale zahar batean: “Lino Ayesta, nire grazian datua”.

Bataiarrikoa gogoan hartuta, “zelan deitzen zara?” itauna entzuten da egun. Baina, pertsonak eta gauzak ez dira deitzen. Deitu, izendatu, egiten ditugu. Ez da berezko deus inoren ezta ezeren izena. Guk emaniko zerbait da. Eta, zer garrantzitsua da konturatzea ez dela ekintza neutral eta aseptikoa inori edo ezeri izenaren berniza –grazia– ematea.

Hona arduratzen nauena: nire ustea da gure herriak ez duela erabat asmatu bere grazia besterenganatzen; eta nago, etxean ere arazo bat baino gehiago duela bere graziakin, bere izenekin, bere izendapenekin.

Gabonak pasa berri direla, bada ustea aitortzeko ezen xanpaina eskatu geniola Penedèsko enpresa bati: etxera



Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Nire ustea da gure herriak ez duela erabat asmatu bere grazia besterenganatzen; eta nago, etxean ere arazo bat baino gehiago duela bere graziakin, bere izenekin, bere izendapenekin

igortzeko sei botila. Eskatu genien botila denak katalanez etiketaturik bidaltzea, hala eskaintzen baitzuten euren webgunean. Egia esan, xanpaina eskatu genien –ardoa ez ezagutu arren– etiketa katalanera hutsez idatzita zeukatelako.

Igorri egin zizkiguten katalanek, igorri, euren mahats prentsatuak, katalanez etiketaturiko botila eder askoetan... *Vizcaya* delako paraje batera, baina. Esan genien halako lekurik ez zela gure artean aspaldi. Hartara, xanpaina fakturatzeko, arren, *Bizkaia* izendapena ofizialki onarturik daukan lurraldera.

Ba, ez. Ezta erantzun ere. Leku-izenen zerrendetan ‘uvea’ baizik ez haiek... Azkenean, *País Vasco* delako batera igorri zizkiguten ardo apartsua eta ordainagiria. Gozoa-edo, ardoa. Ozpina askoa, faktura.

“Kanpoztarrak, badakizu. Nahikoa egin dute”, esan zidaten etxean. Nahikoa egin ote dute? Horra nire duda. Eta ez bakararra...

Bizkaia, Euskal Herria... Nahikoa egin eta egiten ote dugu guk geure grazia kanporatu eta munduratzeko?

Zer egin, onar dadin geurea, gurerera? Ez ote gaude aldra baten, lobby baten, beharrean euskaldunok, geurea besterenganatzeko: nola produktuak, hala izendapenak?

Mailingak egiten dituzten enpresa eta erakunde horiek –bertokoek nahiz haragokoez– izan behar dute gure graziaren berri. Nahikoa ez bada ere, guk euskaldunok hor eragin ezik... ■

ARABAKO BERTSO KUADRILLA 2018 ARTEKO A

URTARRILAK 19 - MARTXOAK 17

BAT-BATEKO 14 TALDE IDATZIZKO 17 TALDE

14 KANPORAKETA, 3 FINALURREKO ETA FINALA 350 PARTE HARTZAILA

arabako bertsozale elkaria

www.bertsozale.eus/araba

Pubese mugosak

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

Vital gizarte ekintza

LABORAL Kutxa

udapa

artepan

ARGIA